

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



# Lengua Vasca y Literatura II EAU 2022

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2022ko EZOHIOA

**EUSKARA ETA  
LITERATURA II**

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2022

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA II**

***Ez ahaztu azterketako orrialde guztietan kodea jartzea.***

- Lehenbizi TESTU bat duzu.
- Testu bakar horren gainean eraikiak daude hiru atal (A, B, C).
  - A: Irakurmena
    - Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)
    - Gaia eta ideiak/laburpena (2 puntu)
  - B: Hizkuntzaren eta literaturaren inguruan (1 puntu)
  - C: Idazlana (5 puntu)
- **Atal bakoitzean** dauden bi aukeretako bakar bati erantzun behar diozu.
- **Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2022ko EZOHIKOA

**EUSKARA ETA  
LITERATURA II**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2022

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA II**

## **Itzulera baten historia**

*Itzulera baten historia* titulua eman zion Martin Ugaldek Venezuelatik Euskal Herrira itzultzeko erabakiaren kontakizunari.

Itzulera etxera, aberrira, Edenera, lehenera, haurtzarora, ama-hizkuntzara, iturrietara... Idazlea hara eta hona ibili da bizitzako baso urrunetan, baina ez zaio han-hemen ogi apurrak botatzea ahaztu. Ez galtzeko, nondik eta nola itzuli jakiteko, seinaleak identifikatzen jakin behar.

Erbeste luzea bizitzen ari da idazlea, baina ez du itzulera baztertzen. Erosoa egiten ari zaio bizitza, gero eta erosoagoa, fortunak ez dio bizkarra erakutsi, aitzitik baizik, baina idazleak memoria lantzen eta seinaleei hautsa kentzen segitzen du, ogi apurrak botatzen ditu bidean, ez du jatorriarekin lotzen duen soka eteten.

Irakurketen, gutunen oroitzapenen ogi apurrei esker, idazlea lotuta dago jaioterriarekin, oroiminak ama-hizkuntzaren sustraietan dauka finkatuta aingura nagusia. Ez da, ordea, aski, eta itzultzen diren guztien tragedia bera biziko du Ugaldek ere: bazekien ez zituela alde egin zuen garaiko giroa, herria, hizkuntza, idealak aurkituko; aurrez zekien ez zuela behin atzean utzi zuena utzitako moduan aurkituko.

Sorpresa ez dio, bada, aldaketak eragin, aldaketak hartutako bideak baizik. Ez da amestu zuen bezalakoa gertatu, Euskal Herriak hartu duen norabidea ez da bere gustukoa. Handiegia da espero zuenaren eta ikusten ari denaren arteko kontrastea. Itzuleraren ontziak ez du gogobeteko portura ekarri eta Ugaldek garbi ikusi du gertatu dena: urrun zegoen bitartean denbora ez da gelditu, bere lana egiten segitu du. Aspaldi utzi zuen portu maitea denboraren haizeek aldatu egin dute, ez da jada bere itzaropenak amesten zuen babesleku hura.

Ugalde ez zen, ordea, otzandu. Besteak beste, hori ere zor diogu.

Anjel Lertxundi  
*Itzuliz usu begiak*  
(moldatua)



## **A ATALA: IRAKURMENA (4 PUNTU)**

### **• ULERMENARI BURUZKO GALDERAK (2 PUNTU)**

Bi aukera hauetako bati erantzun behar diozu (A1.1 edo A1.2)

#### **A.1.1. ULERMENA (2 puntu)**

Aukeratu erantzun egokiena. Aski da erantzun-orrian zenbakia eta letra jartzea:  
1.a, 2.d,...

#### **1. Testuaren arabera,...**

- a) Anjel Lertxundik idatzi du *Itzulera baten historia* izeneko liburua.
- b) M. Ugalderen Euskal Herrirako itzulera kontatzen du liburuan Lertxundik.
- c) jaioterritik urrun ibili da Ugalde idazlea, jaioterrira ahaztu gabe.
- d) ogi apurrak biltzen ari da Ugalde idazlea jaioterrira itzultzeko.

#### **2. Testuak dioenaren arabera,...**

- a) idazlea ez dago eroso erbestean, eta horregatik itzuli nahi du.
- b) erbestealdia ondo joan zaio, eta horregatik, aukera dauka itzultzeko.
- c) jaioterrian utzitako gauzez oroitzen da idazlea.
- d) nahi ez dela ere, jaioterrira lotutako soka beti eteten da.

#### **3. Testuaren arabera,...**

- a) idazleak bizitza erosoago baten bila itzuli nahi du jaioterrira.
- b) idazleak ez du hautsi nahi izan jaioterririkiko lotura.
- c) idazleak jadanik ez ditu aurkitzen lehen bota zituen ogi apurrak.
- d) irakurketak eta oroitzapenak ogi apurrak bezain garrantzitsuak dira.

#### **4. Testuak dioenaren arabera,...**

- a) idazlea itsasontziz joan zen erbestera eta itsasontziz iritsi da portura.
- b) aingurak eta portuak aipatzen dira testuan, itsasozalea zelako idazlea.
- c) idazleak uste zuen gauzak utzitako moduan aurkituko zituela itzuleran.
- d) garrantzitsua da idazlearentzat euskararekiko lotura.

#### **5. Testuaren arabera, baieztapen hauetatik zein EZ da egia?**

- a) Itzultzean idazleak beste Euskal Herri bat espero zuen.
- b) Aldaketak gertatu izanak ezustekoa eman dio M. Ugalderi.
- c) Idazlea harritu egin da garai batetik hona nabaritu dituen aldaketen aurrean.
- d) Idazlearen erbestealdian denborak aurrera egin du, eta aldaketa handiak gertatu dira Euskal Herrian.





A.1.2. ULERMENA (2 puntu)

Erantzun, zeure hitzekin, galdera hauei:

1. Baso urrunez, haietan ez galtzeaz, eta ogi apurrez ari da testua: non daude baso horiek, eta zer dira benetan ogi apurrak?
2. M. Ugalde nola egon da jaioterriari atxikita erbestealdian?
3. Itzuli denean, zerbait ez du gustuko idazleak. Zer, eta zergatik?
4. Euskaldunok zertan gaude zorretan erbesteran egon den idazlearekin?

▪ GAIA ETA IDEIAK/LABURPENA (2 PUNTU)

Bi aukera hauetako bati erantzun behar diozu (A.2.1 edo A.2.2)

A.2.1. GAIA ETA IDEIAK

GAIA: Aukeratu ezazu testuaren gai nagusia honako aukera hauen artean (0,5 puntu):

- a) Martin Ugaldereen erbestealdia eta jaioterrirako itzulera laburbiltzen da.
- b) Erbestealdi guztiek dute, lehenago edo geroago, bere itzulera.
- c) Euskal Herrian gerraostean gertatutako aldaketak M. Ugaldereen ahotik.
- d) Erbesteratu guztiak ogi apur alegiazkoek gidatuta eta herriminak jota itzultzen dira jaioterrira.

IDEIAK (1,5 puntu)

Azaldu itzazu, era eskematikoan, testuan agertzen diren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak.

A.2.2. GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)

GAIA: Aukeratu ezazu testuaren gai nagusia honako aukera hauen artean (0,5 puntu):

- a) Martin Ugaldereen erbestealdia eta jaioterrirako itzulera laburbiltzen da.
- b) Erbestealdi guztiek dute, lehenago edo geroago, bere itzulera.
- c) Euskal Herrian gerraostean gertatutako aldaketak M. Ugaldereen ahotik.
- d) Erbesteratu guztiak ogi apur alegiazkoek gidatuta eta herriminak jota itzultzen dira jaioterrira.

LABURPENA (1,5 puntu)

Egin ezazu testuaren laburpena (gehienez, 5-7 lerro)



**B ATALA - HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)**

Bi aukera hauetako bati erantzun behar diozu (B.1 edo B.2)

B.1. Aurkitu itzazu testuan definizio hauei dagozkien hitzak:

- Maite den zerbaitek, harengandik urrun egotean, eragiten duen goibeltasunezko egoera.
- Landareetan, zurtoinarekin aurkako noranzkoan hazten den zatia.
- Norbait edo zerbait nora doan adierazten duen lerro zuzena.
- Itsasontziek babes hartzeko edo karga hartu edo uzteko leku egokia, berezkoa nahiz eraikia.
- Nahi edo desiratzen dena gertatuko edo lortuko delako uste ona.

B.2. Azaldu ezazu, zeure hitzekin, honako hitz-kate hauen esanahia:

- ... fortunak ez dio bizkarra erakutsi ...
- ... (idazleak) seinaleei hautsa kentzen segitzen du ...
- ... ama-hizkuntzaren sustraietan dauka finkatuta aingura nagusia ...
- ... Itzuleraren ontziak ez du gogobeteko portura ekarri ...

**C ATALA - IDAZLANA (gutxienez 200 hitz) (5 puntu)**

Bi aukera hauetako bati erantzun behar diozu (C.1 edo C.2)

C.1. ESKUTITZA:

Jaioterritik kanpo bizitzeaz ari da idazlea bere testuan, norbera jaio den herrialdetik kanpo bizi beharraz eta jaioterrira itzuli nahiaz.

Idatz iezaiozu gutun bat halako egoera bizi izan ez duen zure lagun bati, jaioterritik kanpo bizitzeak dakartzan desabantailez eta abantailez hitz egiteko: herrimina, egokitzeko arazoak, arazo ekonomikoak, sentimentalak, bizitza hobe...

C.2. IRITZI-ARTIKULUA:

Testu honetan aipatzen den idazleak denboraren joana nabaritu du: aldatua ikusi du gure herria kanpoan pasatu dituen urteetan. Zuk ere nabarituko zenuen gauza asko aldatu direla haurra zinenetik. Zure gurasoek edo aitona-amonek ere emango zizuten behin baino gehiagotan aldaketan berri. Idatz ezazu iritzi-artikulu bat denboraren joanari buruz: alde onak eta txarrak aipatu, zure iritzia eman...



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

### EUSKARA ETA LITERATURA / LENGUA VASCA Y LITERATURA

#### A ATALA: IRAKURMENA (4 puntu guztira)

Bi ariketa mota daude A atalean, eta ariketa bakoitzaren barruan, beste bi aukera:

- **ULERMENA (2 puntu)** eta
- **GAIA ETA IDEIA NAGUSIAK / GAIA ETA LABURPENA (2 puntu).**

#### **ULERMENA:**

Ariketa hauen helburua idatzizko ulermena neurtzea da. Beraz, ariketa itxia bada, hau da, aukera anitzeko galderak edota egia/gezurra erakoak, kasurako, erantzun zuzenak emango zaizkio zuzentzaileari, zuzendu ahal izateko. Erantzun okerrengatik ez da zigorrik izango.

Galde-erantzun erako ariketetan, ikasleak bere hitzekin eman behar du erantzuna, eta ez testuko hitzekin: ematen den erantzuna testuaren beraren kopia hutsa denean, galdetzen denari erreparatu gabe, zigortu egingo da.

Zuzentasunari dagokionez, ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats ortografiko txiki batzuk edo eta gaizki-ulertuak sortzen ez dituzten akats gramatikalak egitea ez da zigortuko.

#### **GAIA ETA IDEIAK / LABURPENA**

**Gaia:** lauzpabost esaldi aurkeztuko zaizkio ikasleari, horien artean aukeratu dezan bere iritziz testuko gaia laburbiltzen duena. (**Guztira 0,5**).

**Laburpena / Ideia nagusiak:** **Laburpenean**, ikasleak sintetizatze duen gaitasuna neurtuko da. Ikasleak sortzen duen testuak "josia" behar du. Testuaren laburpena egitean estilo zuzena eta zehar estiloa, biak onartuko dira. Beraz, ez da txartzat emango "autoreak dio" edo "idazleak dio" eta horien antzeko egiturak erabiltzea.

*"Lehenengo amaren egoera azaltzen du Arantza San Sebastianek, ahaztu duen guztia, gogoratzen ez duen guztia eta iraganaren eta etorkizunaren arteko une horretan geratu dela ama. Gero ulergaitz agertzen da bere amaren egoeraren aurrean eta gaixotasunari uko egiten dio. Azkenik eguneroko bizitzeko bera amaren egoera bat azaltzen du eta amaren harridura amaigabeaz mintzo da, nahiz eta batzuetan oroimenak itzuli egiten zaizkion txiripaz bezala, bat batean."* (1'5 kalifikazioa izan zuen)

*"Gustu musikalaren formazioak norberaren musika zein den irakasten du eta hau erabakigarria da pertsona batek gustoko eta gorroto dituen musika motak ezagutzeko"* (0,75 kalifikazioa)



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

**Idea nagusiak** zein diren esateko orduan, berriz, testuan agertzen diren jarrera, ikuspegi edo argudio-ildo garrantzitsuenak antzemateko gai den ala ez neurtuko da. Ideiok ez dira bata besteari lotu behar eta eskema baten modura aurkeztuko dira. Egiturari dagokionez, ontzat emango da bai izen-sintagma egitura erabiltzea (aditz nagusirik gabe) eta bai perpaus-egitura erabiltzea ere (aditz nagusia erabiliz).

- 1) *Michael Jackson aitortu arren, jende gutxi batzuk bakarrik entzuten dute bere musika*
- 2) *Patxi Huarte eta Koldo Aldabe ez dute bere musika gertutik jarraitu*
- 3) *Michael Jacksonen musika entzutea debekatu diote*
- 4) *Queen, Elton John... entzutea ere debekatu diote*
- 5) *Hauek ez ditu entzun beste giro batean hasi zelako musika entzuten*
- 6) *Berari gustatzen zaiona Tequila du izena*

(1 kalifikazioa eman zion zuzentzaileak. Ergatiboak eta gainerako akatsak gorabehera, ontzat ematekoak dira ideia nagusiak emateko erabili dituen egiturak)

*“-ideologia aurrerakoiarekin konprometitua agertu da beti Mercedes Sosaren musika  
-militarrei ez zitzaien oharkabea pasa eta erregimenak iraun zuen artean debekatuak izan ziren  
“La Negra”-ren diskoak  
-La Plata hirian kontzertua ematen ari zela militarrek kantaria bera eta publiko guztia atxilotu zuten  
arte  
-Pariseran joan zen bizi lehenengo, Madrileran hondoren eta diktadura amaitu aurretik, Argentinara  
itzuli zen”*

(0,7 lehen zuzentzaileak, 0,75 bigarrenak)

*“-Mercedes Sosaren heriotzaren berri ematea  
-entzule asko izan zituela adieraztea”*

(Zuzentzaileak ez zion puntu bakar bat ere eman)

Hitz batean, forma kontuez haratago, testua ulertu duten antzematea da helburua. Horrexegatik, *Laburpenean* eta *Idea nagusiak* adieraztean ere, ez da zigortuko zuzentasunari eta ortografiari dagokienez, ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats txiki batzuk edo eta gaizki-ulertuak sortzeko modukoak ez diren akatsak egitea.

**(1,5 guztira).**

*Laburpenean* eta *Idea nagusiak* adieraztean ere, zuzentasunari eta ortografiari dagokienez, ez da zigortuko ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats txiki batzuk egitea edota gaizki-ulertuak sortzeko modukoak ez diren akatsak egitea.





## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

### **B ATALA: HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu guztira)**

Zuzenak diren erantzunak baino ez dira kontuan hartuko.

Atal honetan ere, aurreko ataletan bezala, ortografia edo gramatika hutsei dagokienez irizpide berberak balio dute. Hala ere, eginkizun den ariketaren funtsari dagokion egituran ez da ontzat emango inolako hutsik. Esaterako, ariketa batean perpaus erlatibo bat sortu behar bada, nekez onartuko da *-(e)na*-ren ordez *-(e)la* bat.

### **C ATALA: IDAZLANA (5 puntu guztira)**

Idazlana egiteko, bi aukera izango ditu ikasleak: eskutitza edo iritzi-artikulua. Gutxienez 200 hitz idatzi beharko ditu.

Idazlanaren kalifikaziorako, kontuan hartuko da ea eskatutakoari zuzen eta egoki erantzun zaion, beharrezko informazioa aukeratu duen, informazioa era logikoan ordenatu eta lotu duen, eta hizkuntza-baliabide aberatsak, askotarikoak, zehatzak eta zuzenak erabili dituen.

Idazlana garatzeko gidoia ematen denean, gogoan izan behar da gidoiko puntuek lagungarri izan nahi dutela, ikaslea adarretatik ibil ez dadin eta gaiari hel diezaion. Baina ez da nahitaezkoa puntu guztiak garatzea.

Eskaera-gutunetan edo beste edozein motatako gutunetan ez zaie eskatuko horrelako idatziek izan ohi duten egitura formala (eskatzailearen izena, NA zenbakia, "adierazten du", "eskatzen du"... moduko egitura, alegia). Formari dagokionez, nahikoa da modu zabalagoan adieraztea zein den eskaria, kexua, edo dena delakoa.

Zuzentzeko erabiliko diren irizpideak eta maila bakoitzari dagozkion adibideak: (adibide pare bat maila bakoitzeko: adibide bat tarte bakoitzeko nota altuenetik gertu dagoena; beste adibidea, tarteko nota baxuenetik gertuago dagoena)

#### **4-5 puntu: (8-10)**

- ✓ Testua, eskaturikoari lotzen zaio eta ondo antolaturik dago.
- ✓ Erabiltzen diren ideiak eta argudioak ongi loturik eta garaturik daude.
- ✓ Aukeratu den edukia esanguratsua da gaiaren garapenerako.
- ✓ Erregistro egokia erabiltzen da eta lokailu, lexiko eta egitura sintaktiko aberatsak erabiltzen ditu.
- ✓ Ortografia eta puntuazioa zuzenak dira

*" XV. mendean Guttenberg-ek inprenta asmatzeak mesede itzela egin zion garaiko kulturari. Garai hartako idazleak ez ziren negarrez hasi haien lanak mundutik barreiatzean; ordea, izugarri poztu ziren haien ospea eta ohorea handituko baitziren. SGAE handik egotekotan Inkisidoreen antzera arituko zen inprenta ilegalen bila, kononen bat kobratzeko edo!.*



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

*Internetek kultura goitik behera aldatu du. Lehen soilik idazleek idazten zuten, aktoreek filmak egin, argazkilariek argazkiak egin... Gaur egun jarduera horiek demokratizatu egin dira. Blogger, Youtube, Flickr... bezalako webguneei esker edonor bilakatu daiteke artista edonoiz, horretarako trebezia izanik, eta, oraindik hobea dena, munduko edonork ikusi eta baloratu ahal du nahi izanez gero. Artista bat baino gehiagok jadanik Interneten ikusiak eta kontratatuak izan dira, ospea lortuz.*

*Kulturaren bultzatzaile hauek dohain egiten dute lan. Ez dute nahi dirutzarik, soilik kulturaz gozatzea eta besteak gozaraztea. Ez da hori SGAE-ren ikuspuntua. Haiei emule-eren bidez kultura hedatzea bost axola. Haiek helburua dirua bereganatzea da, haien patrikak aski betetzea.*

*SGAE guztiz oker dabil planteamendu hori defendatzean. Beharbada disken salmentatik datorren kapitala, baina abeslarien ospea? Esponentzialki hazten da Interneteko mandoari esker. Ospea eta kulturarekiko axolagabekeria aski erakutsi dute, ondorioz haien hizkuntzara itzuliko dut baieztapen hau, euroetara: Abeslari bat jende gehiagok ezagututa eta benetan ona baldin bada, zenbat dirutza lortuko da kontzertu, telebista, emanaldi edota horrelako jardueran bidez? Arazoa izan daiteke beharbada hain onak ez izatea eta horretaz gu konturatzea nahi ez izatea...*

*Beraz, SGAE-ko lagunok, ez bota 'so'-rik mandotxoari hark bultzatuko baitu kultura eta artista onak eta diruzaleak bereiziko baititu"*

*"Kaixo, Natalia*

*Zelan doa bizitza? Asteak dira hitz egiten ez dugula, potxola! Azterketak gora eta azterketak behera. Baina, beno, laster bukatuko da dena! Bai, badakit oso arraroa dela nik ordenagailua hain goiz hartzea. Berri txarrak ditut. Oso berri txarrak, tamalez.*

*Aitite gaixorik zebilen, badakizu. Auto istripua izan zuenetik ez du burua altxatu, gizajoa! Hori lehenengo, gero amamarena... Nekez jarraitzen zion egunerokoari, goizero altxatu beharrari, familia eta lagunak irribarre eta 'ondo nagoela, motel!' batez lasaitzeari. Eta gainera artritisiari eta adineko guztien gaitzei aurre egin behar. Gizon indartsua da aitite.*

*Baina, antza danez, ez guk uste bezain indartsu. Dirudienez, ezin izan du jarraitu eta burmuinak ondo erantzuteari utzi dio. Sendagilearenean egon gara goizean eta aititeri Alzheimerra diagnostikatu diote. Are gehiago, denborak aurrera joan ahala, okerrera doan gaixotasunaren aldaeretako bat. Aitonak ez du egoeraren larritasuna ulertu, baina amari mundua gainera erori zaio. Negarretan deitu dit telefonoz. Emakume indartsua ere bada ama.*

*Aditzean genuen aitona ez zegoela erabat ondo, zenbait gauza ahazten zituela eta orduak eta orduak eman ahal zituela lasai eta isilik. Normaltzat hartu genuen, dagoeneko zahartxoak bait, eta guk gauzak ahazten bagenituen, zergatik berak ez? Baina gero izenak nahasten hasi zitzaizkigun, non zegoen edo nora joan behar zuen ahazten... Sendagileak tratamendua bidali dio eta hobe daitekeela esan, baina hori momentu puntualen gauza izan daitekeela ere bai.*

*Ez dakit zer egin, potxola! Aitonak ahazten banau, zer egingo dut? Badakizu zenbat maite dudan aitona eta ze neurritan elkarrekin gauden. Erantzun goiz, behar zaitut.*

*Musu bat,*

*Rocio*



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

### **3-4 puntu: (6-8)**

- ✓ Testuak ez du ia akatsik; izatekotan, oso akats txikiak dira, inola ere ez sistematiakoak.
- ✓ Erabiltzen diren ideiak eta argudioak bata besteari loturik eta garaturik daude.
- ✓ Egitura sinpleen ondoan aberatsagoak ere erabiltzen ditu (lokailuak, menderagailuak, etab.).
- ✓ Erregistro egokia erabiltzen da.
- ✓ Ortografia ondo menderatzen da, oro har, tarteka akatsen bat edo beste egin arren

*Michael Jackson, denok dakigun bezela, mundu honetan izan dugun abeslari eta dantzari trebea izan da. Nahiz eta ez izan gure kultura berdinekoa eta bere abestiak ulergaitzak izan, Michael Jacksonen musika soinuak gaitasun handia du, guztiok dantzan jartzeko bere musikarekin.*

*Michael Jackson gaur egun, Elvis Presleik duela urte batzuk izan zuen garrantzi berbera du. Biak izan dira historia musikalaren jaun eta jabe, biak sortutako musikak edo soinuak, bizitasuna eman die gure bizitza sumeei, alaitasun puntu bat eskainiz.*

*Gizon honek, hots Michael Jacksonek nahiz eta bere bizitza pertsonalean huts egite asko izan (droga kontuetan, bortxaketetan...) musika arloan oso kategori handiko gizona izan da eta bere heriotzak, gure oroimenean hutsi ditu bere abestiak, esate baterako: smouth, criminal.*

*Baina Michael Jackson ez zen soilik bere abestiengaitik egin ospetzu, baizik eta bere dantzatzeke moduengaitik. Beste abeslari guztiekin alderatuta, honek, bizitasuna ematen zion, bere doinuari, ohol gainean edo antzoki batean, izugarrizko erakustaldiak eginez dantzan. Sale asko lortzen zituen. Kultura guztietako saleak zituen eta gaur egun horrelako gutxi daude, kultura desberdineko saleak edo jarraitzaileak dituenak. Eta talde horiek ere gure historiaren parte izatera pasatu dira. Baina gizon honek miloika eta miloika sale izan ditu beti eta bere heriotza oraindik ez bazen gertatuko sale gehiago izango zituen. Baina denok jakin dugu, Michael Jacksonek azaleko arazoak izan dituela eta egindako operazio guztien ondorioz, bere gaisotasuna txarrera joango zela. Nahiz eta orain bera ez egon, bere sale guztiok oroimenean izango dugu. Zeren eta bere musika doinuak gure bizitzan hutsune handi bat bete bait du.*

*“Kaixo aitite maitea,*

*Atzo amak zure gaixotasunaren berri eman zidan, begiak malkoz bustita zeuzkala. Medikuak alzheimerra zenuela esan zizun eta horrekin beharbada zure bizitzaren ikuspuntua bat batean aldatu egin zen.*

*Egia da bai, duela gutxi zenbait arazo izaten hasi zarela iloben izenak gogoratzeko edo giltzak non utzi dituzun jakiteko. Baina guk ez genuen ezer ikusten edo ez genuen ezer ikusi nahi.*

*Txikitatik gurasoek zaindu ezin nindutenean zuregana eramaten ninduten jan, lo edo jolastera. Baita igandero gure bidai pribatuetan inguruneko zonaldeak esagutzera eramaten ninduzun. Bertan zure gaztaroko istoriotxoak, lagunak eta baita zenbait neska lagunenganduz hitz egiten zenidan. Zekulako gertaerak ziren. Nik gogokoan ditudana amama esagutu zenuenarena da. Biok hain gazte eta osasuntzu imaginatzen zaituzten etorkizunean zer pasatuko den jakin barik.*



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

*Orain egoera antzekoa da baina zerbait gehitu behar diogu, iragana ere ez duzula jakingo. Hala ere, zuk nire izena jakin ezean, hamar aldiz errepikatuko dizut, etxean bainugela non dagoen ez jakitean, haraino eramango zaitut, bizitza osoa emandako hiritik paseatzean kaleak ezagutzen ez badituzu, nik azaldu egingo dizkizut.*

*Izan ere, zuk behin nirekin egin zenuen, zenekin guztia edo gehiago erakutsi zenidan, bizitzaren dinamika azaldu zenidan eta ahulak lagundu behar direla ere irakatsi zenidan. Hori dela eta, zu ez zaitut alde batera utziko. Badakit gauzak gogorrak izango direla, gaixotasun bat ez da txantxa. Badakit noizbehinka ez duzula ezta ideiarik izango nik nor naizen.*

*Kontran, arrazoi guzti horiek dira indartsuago egiten nautenak. Nahiz eta nik zure iloba izateari utzi, zuk beti nire aitona izango zara. Haur bat nintzela bizitza erakutsi zidana eta bizitzak berak batzuetan gauza onak eta gauza txarrak ditut. Nire proposamena gaixotasun hau gauza on bat bilakatzea lortzea da.*

*Horregatik inoiz baino indar handiagoa dut nik zuri behin irakatsi zenidana kontatzeko. Azken finean, gaixotasuna izanda edo ez beti maite egingo zaitut eta pertsona berdina izango zara. Zuk aldatzeagaitik ez gara guk aldatuko, aitzitik, lagundu egingo zaitugu bizitza ezin hobea izan dezazun zuk guri eskaini diguzun bezala.*

*Besarkada handi bat,  
Zure iloba kutuna*

### **2'5-3 puntu:**

- ✓ Idatziak zenbait akats ez sistematiko du edukian edo forman. Gabeziek, nolahi ere, ez dute oztopatzen testua ulertzea.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen ditu orokorrean.
- ✓ Argudioak edo ideiak urriak dira edo ez daude guztiz garatuak edo errepikatu egiten dira.
- ✓ Ideien eta egituren arteko koherentzia eta kohesio arazoak baditu ere, hauek ez dute ulergarritasuna oztopatzen.
- ✓ Ortografia eta puntuazioan akats txikiak ditu.

*Idazten hasi egin behar naizen artikulua Michael Jackson-ri zuzendua dijo. Atzo arratsaldean musika eskolan nobilela, irakasle bat etorri zitzaigun esanez Michael Jacksonen heriotzaz, guk ez genun sinisten orduan etxera iritsi nintzenean eta telebista piztu nuenean, neska bat azaltzen zen bere etxearen aurrean esanez Michael Jacksonek hil egin zela. Notizia hori entzun eta gero, nire sabelatik tximeleta batzuk bezela sentitu nituen eta ain urduri nengoen ordenagailua piztu eta informazioa aurkitzen hasi nintzen, zeren artista hau txikitatik entzun dut eta gustokoa nuen.*

*Michael Jacksonen musika oso dibertigarria da, baina ez bakarrik hori, baizik eta mota guztietako abestik abesten zituen. Abestien letrak oso politak ziren, ulertu ezker. Idazten zituen abestik signifikatu bat zuten beti, bere bizitza kontatzen zuen abesti horietan, eta esan beharra dago bere bizitza oso zaila izan dela.*

*Artista honen bizitza oso zaila izan da, batez ere bere aitak derrigortzen ziolako bera eta bere anahiei abestea eta dantzatzea, gero diru horrekin bizi ahal izateko pobreak zirelako. Danak batera abesten zuten eta ondo ateratzeko hainbat ensaio egiten zituzten, baina ensaio horietan oso gaizki pasatzen zuten zeren zerbait gaizki atera ezker bere aitak jo egiten zien.*



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

*Urte batzuk pasa zirenean, Michael Jacksonek aukeratu zuen azal txurikoa izan nahi zuela eta bere aldetik hasi zenez abesten eta jendea maitatzen zuenez kontzertuk egiten hasi zen, orduan diru horrekin, bere operazioa ordaindu zuen. Michael Jacksonek oso abeslari ona izan da, eta Estatu Batuetan gehienbat jendea asko maite zuen, hemen ere baina han askoz gehiago. Abesti onak izan arren, oso dantzari ona zen eta bere pausoak gaur egun jende askok eta askok egiten dute. Bera hil egon arren, oraindik jendea asko maite du eta inoiz ez dute ahaztuko artista on bat izan dalako eta jendea asko maite duelako.*

2011ko uztailaren 7a  
Alkatea  
Padres Paulinos Kalea  
Bizkaia 48860

*Alkate jauna,*

*Gutun honen bitartez eskaera bat egin nahi dizugu.*

*Duela pare bat aste ONG-ko informazio unkiagarria jaso genuen. Bertan, dirua beharrezkoa zutela adierazten zuen. Honegatik, ideia bat bururatu zitzaigun. Zure baimenarekin, musika jaialdi bat antolatzea eta jasotzen den dirua ONG hori eman.*

*Hau egin ahal izateko, eszenatokia eta pare bat txozna beharko genituzke. Musikariak herriko gazte batzuk izango ziren, hauek ondo jotzen baitute eta ez zutelako dirurik jasoko. Aproposena gazte egunean egitea izango zen, jasoko ditugun irabaziak handiak izango direlako.*

*Musika jaialdian irabazten den guztia ez da, nozki, ONG-ra joango. Lehendabizi eszenatokiak eta txoznak ordainduko dira, eta jaialdian joko duten musikariei opari bat emango zaie.*

*Jaialdian gainera, ONG-ko errepresentantea etorriko da han aurkezteko, honela, inor interesatuta egonez gero sozioa egin ahal izango da.*

*5 talde desberdin joko dute, guztiak ezagunak herrian, eta goizean eskoletako gazte batzuk pailasoz mozoratu eta txikientzat aktuatuko dute (gazte eguneko programan baitago). Guzti honengatik espero den emaitza oso ona izango dela uste da.*

*Beste barik gure proposamena kontuan izango duzulakoan eta aurretik eskerrak emanez agurtzen zaitugu*

### **1-2'5 puntu: (2-5)**

- ✓ Testua ulergaitza egiten duten akatsak ditu.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akatsak egiten ditu.
- ✓ Ulergarritasuna oztopatzen duten akatsak ditu tarteka.
- ✓ Ortografian, arruntak diren hitzetan oinarritzko akats larri batzuk egiten ditu, baina ez sistematikoak.

### **1-ETIK HURBIL DAGOEN TESTU ZATIA:**

*Bilbon, 2010eko Ekainaren 10an*

*Jaun hori:*

*Ni xxxx naiz eta musikaria naiz. Pasaden astean Interneten sartu nintzenean ikusi nuen edonork nire abesti berrienak jaits ditzakeela ordaindu barik. Momentu hontan, oso*



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

*kezkatuta geratu nintzen pentsatu nuelako nire karrera profesionala amaituko zezakeela, ez zait gustatzen lan egitea dohainik.*

*Nahiz eta gustatzen zaidan jendeak entzuten nauela gustatuko litzaidake legearen bidez izango zela. Horregatik, zure laguntza eskatzen dizut zeren eta uste dut arazo honetan neurri gogorak ipiniko behar direla. Hala ere, ez dut nahi jendeak entzuteari usten nauela neurriengatik. Orduan, ez dakidanez zer egin dezaket zure aholku edo emaitza entzutea gustatuko litzaidake.*

*Nire ustez, ulertzen dut diskoak garestiegiak direla baina beste lagun musikarien iritsia Internetetik musika jaitea debekatu behar dela da baina, nik uste dut zure taldeak (SGAE) ipin dezake lege bat esaten ordaindu behar dela Internetetik kultura jaisteagatik. Zer iruditzen zaizu?*

*Zure erantzuna gogoz espero dut.*

### 2,5 ERA HURBILTZEN DEN TESTU ZATIA:

*Musika eta gizartea*

*Gaur egun musika garrantzia handia dauka, baina hau ez da berria iraganan musika jendea mugitzen zuen, baina bakarrik batzuk entzun ahal zuten, normalean dirudun jendea.*

*Musika daukan arrakasta arrazoi askotik da, adibidez, garraio publikoan joaten zarenean, aspertzen zara, horregatik musika entzuten duzu, mugikorrekin, mp-3, Ipod... eta horrela entretenitzen zara, edo egun txarra izan baduzu musika alaia ipini eta hobeto sentituko zara, musikak orokorrean gure alaitasuna edo gure zoritzarra adierazten du, eta gainera gure izaeraz asko ezaten du.*

*Denboran zehar musika motak asko aldatu dira eta mota berriak sortu dira, Adibidez, ehun urte atzera joaten bagara musika hori ez dauka zerikusirik gaur egunkoarekin.*

*Espanian sortu dira beste musika mota, reggetoia adibide bat da.*

*Musikan mubimendu asko eragiten dute, moda, literatura eta pentzatuko duzue , literatura? bai, zerikusirik asko daukate; literatura normalean (mota asko daudelako) nola den momentuaren biziduna adierazten du, ea demokrazian, diktaduran eta abar gauden hala ez, Gizakion pentsakerak ere adierazten ditu, eta gauza horiek arremn handi-handia daukate, literatura eta musika biak expresioi formak dira eta horregatik historiako parte inportantea eta garrantzizua da.*

*Beste arremnauk daukate, esatebaterako, biak diru asko mugitzen dute urtero, musika disko eta kontzertuekin eta literatura liburuak argitaratzen, baina azken urtean teknologiarekin ez da beharrezkoa diskoak edo liburuak erosi saretik jaitzi ahal dituzu.*

*Amaitzeko aholku bat: irakurri eta entzun musika egunero*

### **0-1 puntu: (0-2)**

- ✓ Testua ulergaitza egiten duten akats sistematikoak ditu.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akats nabarmenak egiten ditu.
- ✓ Nabarmen geratzen dira komunikazio eta hizkuntzari buruzko gabeziak.
- ✓ Nabarmena da eskatutako hitz kopurura ez dela iritsi.
- ✓ Oinarrizko akats gramatikal larri ugari egiten ditu (ergatiboa, komunztadura, konpletiboak...).





## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

*Kaixo jaun andreok gutun hau idatzi dizuet kontzertu benefikoa egiteko zure ONG laguntzeko. Nire ustez BEC hona da egiteko leku andia delako. Kontzertu horretan musika desberdin mota entzungo da. Beraz rock izarra adibidez ACDC, KISS edo beste batzuek, hip-hop izarrak Eminem eta SOcent, erebai Euskal Herriko abeslaria gure folklore eta gure musika munduan entzuteko. Baina hori ez da garestia beraz zure laguntza behar dut, uzte dut diru asko irabaziko dugu beraz ez kezkatu.*

*Dirua irabaziko dugun Afrikara eramango ditugu Malaria zaintzeko eta ikastolak egiteko gainera dirua geratuko badugu iturriak egingo dugu bere herrian ura ez faltatzeko. Espero dut Aste Nagusian izango dela, gazte asko etortzen delako, ere bai ekarriko ahal dugu talde zahar bat gazteak ez direlako*

*Barakaldon, 2010ko ekainaren 11an  
Egileen elkarteko zuzendariac/Gran Via 56, nº 7  
Bilbon*

*Kaixo, zuzendaria!*

*Gutun hau idatzi dut arazo bat daukadalako.*

*Ni beti musikaria izan naiz; baina orain erabaki dut nire lana handitzen. Nire abestiak ospetsuak izan nahi dut. Horretarako; zurekin hitz egin behar dut.*

*Niri txikitan musikako mundua gustatu zait. Hasieran, dutxan abesten hasi nuen; gero nire familiarekin eta gero, nire abestiak idazten hasi nuen.*

*Nik ez daukat ospetsurik; baina gustatuko nuke nire abestiak ospetsua daukate.*

*Zergatik? Deno, guztiek hona, nire musika entzungo ahal izango lukete.*

*Horregatik, nire abestiek jaitsi behar dute. Munduko jendea nire musika entzun behar dute, ona delako.*

*Nik badakit SGAE hori egin ahal dute. Nire musika entzun behar zenuke eta gero nirekin hitz egiten duzu. Nik dakidalako, zuri gustatuko zaizu. Ez naiz munduko musikalarik onena baina nire musika ez da txarra.*

*Nire abesti guztiak saretik jaitsi ahal badira; jende gehiago entzun ahal izango du.*

*Gaur egun, guztiak Internet daukate, horregatik guztiek ni entzun ahal naute.*

*Nik badakit musikako mundua oso zaila da baina nire musika pena merezi du.*

*Gero arte, Egileen Elkarteko zuzendaria.*

### OHARRAK:

- Gainditu ahal izateko, testua eskatutakoari lotzen zaiola bermatuko da.
- Idazlan bat ez gainditzeko dagoen argumentu bakarra hitz kopurua denean, oso nabarmena izan behar du hutsegite horrek.
- GOGORATU honako hau idazlanaren emaitza ipintzean:



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

IDAZLANAREN BALIOA	1-ETIK 10-ERA KO ESKALAN
5	10
4,5	9
4	8
3,5	7
3	6
2,5	5
2	4
1,5	3
1	2
0,5	1

2022



**EUSKARA ETA LITERATURA II**  
**2022ko EZOHICO DEIALDIA**

**AZTERKETA ZUZENTZEKO TXANTILLOIA**

**A ATALA**

A.1.1. ULERMENA (2 puntu)

Erantzun egokiak:

1. c)
2. c)
3. b)
4. d)
5. b)

GAIA ETA IDEIAK

A.2.1. eta A.2.2

GAIA (Aukeratu egokiena. 0.5 puntu)

Erantzun egokia: a)

**B ATALA - HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)**

B.1. AZPIATALA: Aurkitu itzazu testuan definizio hauei dagozkien hitzak:

- a) oroimina
- b) sustraia
- c) norabidea
- d) portua
- e) itxaropena

Oharra: onartzekoak izango dira bai lema soila bai hitza deklinatuta ematen duten erantzunak.